# Hilketaren kontra



Hasiera-hasieratik Euskal Herriko BAKEAREN ALDEko Koordinakundeak beti adierazi du, bizirako eskubidea Giza-eskubideen oinarri eta ardatza dela. Eskubide honi egindako urratuak salatu eta indarkeriaren astinduak jasaten dituzten senideekiko elkartasuna erakutsi nahian, gure erakunde honek, duela 15 urtetik, *gestoa* egitera dei egiten du. Kontzentrazio isil hauek gatazka bortitzarekin zerikusirik dukeen edozein hilketaren ondoko egunean burutu ohi dira.



Euskal Herriko
BAKEAREN ALDEko
Koordinakundea

BAKEAREN ALDEKOAK ez dugu Euskal Herriko egoera politikoari lotutako inolako hilketarik onartzen, guztiak baitira tamalgarri, bizitzan zehar eurek egindakoaz izan genezakeen iritzia alde batean utzita, zeren eta

- Hilketa hauek guztiak hutsalak eta ez-beharrezkoak izan direla uste osoan baikaude, terroristenak ere barne.
- Terrorista baten hilketa onartzeak biolentziaren bidearen alderdi bat onartzea lekarke. Ez da horrela izan behar. Bakearen aldeko Koordinakundeak denok garela pertsonak, baita biolentzia darabiltenak ere, defendatu du.
- Sufritzen ari direnenganako elkartasuna erakusteak gizatiarrago egiten baikaitu. Ezin dugu hildakoaren senideen oinazea epaitu.

Bizia aldarrikatu, hilketa salatu eta sufritzen ari direnekin negar egin: honek guztiak, erailtzen ari direnen joko maltzurra erabat arbuiatzea dakar. Hau dela eta, biziaren alde gaude, baita hiltzailearena berarena ere. Esandakoa ez da terrorismoak hildako biktimenganako zinezko onespen eta elkartasunarekin bateraezina eta ez du, elkartasun honek, edozein hilketaren hutsaltasuna salatzea galarazten: kontua da sekulan berriro bizi bat gal ez dadin. Bitartean, bortizkeriaren ankerkeriaren aurrean gizartea sentsibilizatzen jarraituko dugu, bai eta jasaten dutenen senitartekoei elkartasun osoa azaltzen ere.


gesto@lander.es
www.gesto.org

Bizkaia:
10.152
48080 Bilbao
944 16 39 29
944 15 32 85

Araba:
2.063
01080 Vitoria-Gasteiz
945 22 08 38

Gipuzkoa:
5.005
20080 Donostia
943 21 09 06

Navarra:
176
31080 Iruña-Pamplona
948 22 31 35